



Lurreratu ahal bezala (Soldatapeko langileentzako gidaliburua)

Ongietorri lan mundura

Zure lehen lan esperientzia izan edo ez, gida hau baliagarria izango zaizulakoan gaude. Besterentzat lan egiten duzu eta une honetatik aurrera hainbat eskubide eta betebeharrak izango dituzu. Pixkanaka azken hauen berri izango duzunez, lehenengoei buruz hitz egingo dugu. *Langileen estatutuari buruzko legeak* (Martxoaren 24ko ED 1/1995) **oinarrizko lan-eskubideak** arautzen ditu:

- ✓ negoziatio kolektiboa egiteko, bilerak egiteko, lan-gatazka kolektiboa izateko edo greba egiteko eskubidea
- ✓ lantokian mailaz igotzeko eta prestakuntza jasotzeko eskubidea
- ✓ sexua, egoera zibila, adina, arraza, gizarte-maila, erlijioari edo politikari buruzko pentsakera, ezgaitasun fisikoak, psikikoak edo zentzumen ezgaitasunak... direla eta diskriminatua ez izateko eskubidea
- ✓ lantokian segurtasun eta garbitasun (lan osasuna) politika egokia izateko eskubidea
- ✓ norberaren intimitatea eta duintasuna errespetatua izateko eta erasoaldirik ez jasateko eskubidea
- ✓ sindikatzeke eta hauteskunde sindikaletan parte hartzeko eskubidea

Hona hemen beste eskubide zehatzago batzuk:

- ✓ lan-kontratuaren kopia bat izan eta gizarte segurantzaren altan egoteko eskubidea
- ✓ garaian eta aldizka kobratzeko, aurrerakinak eskatzeko eta ordainagiriak jasotzeko eskubidea
- ✓ urtean aparteko bi ordainsari jasotzeko eskubidea edo urte bete baino gutxiagoko kontratuetan zati proportzionala jasotzeko eskubidea
- ✓ ordaindutako hilabeteko oporrak izateko eskubidea edo likidazioa egotekotan zati proportzionala izateko eskubidea
- ✓ aparteko orduak nahi izatekotan bakarrik egiteko eskubidea, urtean gehinez ere 80 egin ahal izango direlarik eta ordainetan oporrak edo dirua jasoko delarik, aparteko orduak sartzen dituen pertsonaren nahiaren arabera

- ✓ urtean zehar lanaldi ezberdinak izateko eskubidea, soilik enpresa eta langileen ordezkariak aurrez ados jartzen badira
- ✓ enpresak lan-egutegia emateko eskubidea
- ✓ egunean 8 ordu baino gehiago lanik ez egiteko eskubidea, jarraian 6 ordu edo gehiago lan egitekotan 15 minutuko atsedena izateko eskubidea eta lanaldiaren amaieraren eta hurrengo lanaldiaren hasieraren artean gutxienez 12 ordu izateko eskubidea

Bestalde, zein **kontratu mota** duzun eta zein ezaugarri dituen jakin behar duzu. Honako hauek dira lan-arlo honetan egiten diren kontratu mota garrantzitsuenak:

1.-*Praktikaldiko kontratua*: 6 eta 2 urte bitarteko iraupena izan dezake eta unibertsitate edo Lanbide Heziketa ikasketak bukatu eta ondorengo 4 urteetan izenpetu daiteke.

2.-*Errelebo-kontratua*: 60 edo 61 urte edukita erretiro partziala hartzen duen pertsona ordezkatzeko egiten da. Hortaz, 4 edo 5 urteko iraupena izaten du (ordezkatzen den pertsonak 65 urte beteta behin betiko erretiroa hartzen duen arte) eta arloko akordioari jarraiki, lan-kontratu finko bihurtzen da ordezkatzeko den pertsona jubilatzen denean.

3.-*Lan edo zerbitzu jakin baterako kontratua*: Enpresan ohikoak ez diren (irakaskuntza ez den beste zerbitzu) eta iraupen zehatza ez duten jardueretarako egin behar da. Ezin du amaiera datarik izan.

4.-*Bitarteko lan-kontratua*: Beren lanpostua mantentzeko eskubidea duten langileak ordezkatzeko (eszedentziagatik, amatasunagatik, gaixotasunagatik...) egiten den kontratua da. Ezin du amaiera datarik izan eta ordezkatzeko den langilea lanera itzuli arte iraungo du.

DUZUN KONTRATUARI BURUZKO ZALANTZARIK BADUZU, JO EZAZU ENPRESA-BATZORDERA EDO SINDIKATURA. STEE-EILASEKOENGANA JO DEZAKEZU KONPROMISORIK GABE, BAINA, EZ AL DUZU USTE MOMENTU ONA DELA AFILIATZEKO?

Lehen lan-egunetik hasita kontuan hartu beharreko hitzarmeneko artikulua

Ikastola batean lanean aritu ezean, dagokizun hitzarmena *EAEko Ekimen sozialeko ikastetxeena* da. Eskaiezaguz hitzarmena edo kontsulta ezazu STEE-EILASen web gunean: <http://www.stee-silas.org/01eae/pribatua>. Hala ere, hona hemen artikulurik garrantzitsuenak:

15. artikulua:

- Irakasle gisa edo hezkuntza laguntza emateko aditu gisa kontratatu bazaituzte ikasturte osorako, zure kontratuak gutxienez 365 eguneko iraupena izan behar du (irailaren 1etik abuztuaren 31ra).
- Lanpostua mantentzeko eskubidea duen langile bat ordezkatzeko kontratatu bazaituzte, zure kontratuak pertsona hori lanera bueltatu arte iraun behar du, oporraldiak barne.

16. artikulua:

- Denbora jakinerako lan-kontratuak idatziz eta lau aletan egin beharko dira; alderdi bakoitzak ale bana jasoko du, hirugarren alea, berriz, eskuduntzadun erakundearen esku geratuko da eta laugarrena langileen ordezkarien esku.

20. artikulua:

- Enpresan egiten dizuten lehenengo kontratua baldin bada, 4 hilabeteko probaldia izango duzu, irakaslea edo tituluduna bazara eta 15 eguneko gainontzeko kasuetan. Probaldian zehar bai zuk bai ikastetxeko titularrak kontratua eten dezakezue aurrez jakinarazi gabe, baina ez duzu ordainsaririk jasotzeko eskubiderik.

25. artikulua:

- Inolaz ere ez duzu urtean honako ordu kopurua baino gehiago lan egin behar:
 - ✓ 1252 ordu irakaslea bazara
 - ✓ 1390 ordu irakaslea ez baina tituluduna bazara
 - ✓ 1585 ordu administrazio eta zerbitzuetako langilea bazara
 - ✓ Haur Hezkuntzako lehengo zikloan baldin bazaude: maisu edo maistra 1352 ordu, goi-mailako teknikaria eta laguntzailea 1620 ordu.

27. artikulua:

- Irakasleen lanaldia astean 32 ordukoa izango da; horietatik 23 eskola-orduak izango dira Haur-Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzat, 22 DBHkoentzat, eta 21 edo 22 Batxilergoko eta Lanbide Heziketa Zikloetakoentzat;

gainontzeko orduak irakaskuntzarekin zerikusia duten beste egiteko batzuetarako erabiliko dira. Ez itzazu onartu dagozkizunak baino eskola-ordu gehiago eta beste erremediorik ez baduzu, eska ezazu nolabait konpentsatu diezazkizutela. Lanaldi partziala baduzu, kontratuan agertuko zaizu eman beharreko eskola-ordu kopurua. Asteko lanaldia hiruko erregela simple batez kalkula dezakezu (22 ordugatik 32 badira, Xgatik Y izango dira). Esate baterako, DBHn 11 eskola-orduko kontratua izanez gero, astean 16 lan-ordu izango dituzu.

- Irakasleak ez diren langileentzat asteko lanaldia 34 ordukoa da tituluduna izanik, 35 ordukoa hezkuntza-laguntza aditua bazara eta 40 ordukoa administrazioko eta zerbitzuetako langilea izatekotan.

35. artikulua:

- Gabonetan eta Aste Santuan, irakasleek ikasleek adina opor egun izango dituzte eta irakasle ez diren langileek 7 egun natural Aste Santuan eta 9 Gabonetan. Haur Hezkuntzako lehengo zikloko langileek 10 eguneko atsedena hartzeko eskubidea dute, Gabonetan, Aste Santuan eta udan banatuko direnak.

- Irakaslea bazara gutxienez 45 egun naturaleko atsedenaldira (oporraldia) izan behar duzu jarraian udan; tituluduna bazara udan 45 egun izan behar dituzu eta urtean zehar beste 4, enpresarekin adostu beharrekoak; gainontzeko langileek hilabete bat jarraian izango dute gutxienez.

40. artikulua:

- Gaixorik zaudelako bajaran bazaude, lehenengo hiru hilabeteetan soldataren %100 kobratuko duzu, aparteko ordainsariak eta denbora horretan izaten diren soldata igoerak barne.

42. artikulua:

- Ordaindutako baimenak: 15 egun hezkuntzeagatik; 5 egun aita edo ama izateagatik eta gehienera ere 3 egun bigarren mailara arteko odolkidetasuna duen ahaidea hiltzen bada, ospitaleraten badute edo ebakuntza egiten badiote. Odolkidetasunean lehenengo mailako ahaidea hiltzen bada, 5 eguneko baimena. (2 egun gehiago lurralde historikotik atera behar izatekotan); egun 1 etxe aldaketa egiteko; egun 1 1. edo 2. mailako ahaideen ezkontzengatik; medikuarenera eta erditze

